

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

ehukultura
Bizkaia

**Egitaraua** | Programa

# APIRILA-EKAINA
# ABRIL-JUNIO
# 2018

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU. Bilbao

**www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia**

# UNISOUND BILBAO

## Los Nastys & Las Selvas

**Musika** / música

**Apirilak 13** abril — 19.00

**Chillida erakusgela. Bizkaia Aretoa. Bilbao**

Sarrera libre aretoa bete arte

Entrada libre hasta completar aforo








**Los Nastys** Madrileko banda bat da eta Luis Basilio (ahotsa eta gitarra), Fran Basilio (gitarra fantasma) eta Luli Acosta (bateria) dira kideak.

Gazte bikainak eta musika daukate amesgaiztoen munduan, eta bertan garatzen dituzte gaizkiari aurre egiteko abenturak eta ereserkiak.

Asperraldiaren aurkako esperimentu modura hasi ziren, etorkizunarekin itxaropena galdu duten gazte guztientzako egoera atsekabegarrian, erotasunaren ikuspegiak probatzeko eta ezagutzeko eta are zoroagoak diren lagunak egiteko.

**Las Selvas** Bilboko garage-rockeko gela laski bat dira, non taldekideek den-dena non dagoen badakiten, baina seguruenik zuk ez zenuke ezer aurkituko. Garaje basatia, udako zaratez eta melodiez betetakoa.

**Los Nastys** son una banda de Madrid formada por Luis Basilio (voz y guitarra) Fran Basilio (guitarra fantasma) Omar Montalvo (bajo) y Luli Acosta (batería).

Jóvenes debuty y con música cabrona en el mundo de las pesadillas donde desarrollan aventuras e himnos para combatir el mal.

Empezaron como un experimento contra el aburrimiento ante un panorama desolador para todos los jóvenes desilusionados con el futuro, para probar y conocer las múltiples facetas de la locura y hacer amigos aún más locos.

**Las Selvas** son una habitación desordenada de garage-rock de Bilbao en la que los miembros de la banda saben donde está absolutamente todo, pero seguro que tú no sabrías encontrar absolutamente nada. Garaje salvaje cargado de ruido y melodías de verano.

# SAL MARINA

## Alanbike teatroa

Antzerkia / teatro

Apirilak 17 abril 18.30

**Mitxelena. Bizkaia Aretoa. Bilbao**

CAS

Sarrera libre aretoa bete arte
Entrada libre hasta completar aforo



Itsas belakiak 1500 urte inguru bizi dira. Koralak 4000 bat urte eta Turritopsis Dohrnii bezalako marmoka batzuk hilezkorrak direla esaten da. Gizakiaren batez besteko bizi-itxaropena 80 urtekoa da; urte horietatik asko, hil egingo denaren pentsamenduetan ematen ditu. Hiltzeari diogun beldurra gorputzak bizitzari eutsi diezaiogun sortzen duen babes-mekanismoa da.

Marinak agorafobia pairatzen du. Denbora luzea darama etxetik irten gabe. Mundu erosoago, hobe bat sortu du bere inguruan, non ezin zaion ezer ere gertatu eta ezin dezaken inolako beldurrik izan. Bizirik jarraitzen duela gogorarazteko, beldurrak egunero jotzen du bere atea. Kanpoan zein barruan, behin eta berriz, bizitza tematu egin da bizitza bizi egin behar dela errepikatuz.

Las esponjas de mar viven unos 1500 años. Los corales unos 4000 años y de algunas medusas como la Turritopsis Dohrnii se dice que son inmortales. El ser humano tiene una esperanza media de vida de unos 80 años. Gran parte de los cuales la pasa pensando en que va a morir. El miedo a la muerte es una defensa del cuerpo para mantenernos con vida.

Marina es una mujer que padece agorafobia. Lleva mucho tiempo sin salir de casa. Ha creado a su alrededor un mundo más confortable, mejor, en el que nada puede pasarle, en el que no tiene qué temer. El miedo llama cada día a su puerta para recordarle que sigue viva. La vida insiste, dentro y fuera, en ser vivida.

# EHUorkestra Sinfonikoa

**Musika /** música

Maiatzak 3 mayo 19.00

**Mitxelena. Bizkaia Aretoa. Bilbao**

Sarrera libre aretoa bete arte / Entrada libre hasta completar aforo



**Programa /** Programa:

- *Saranbande*. G.F. Haendel.
- *Obertura Coriolano, Op. 62*. L. Van Beethoven.
- *Sinfonía "Sorpresa"*. J. Haydn.
- *Sinfonía Inconclusa*. F. Schubert.
- *Intermezzo de la Cavalleria Rusticana*. P. Mascagni.
- *Pavana para una Infanta Difunta*. M. Ravel.
- *Danzas Rumanas*. B. Bartok

**EHUorkestra Sinfonikoak bi xede ditu: musika sinfonikoaren bidez unibertsitatearen eta euskal gizartearen artean kultura komunikatzeko bitartekoa izatea, eta elkarteko kideen artean musika prestakuntza eta ikerketa sustatzea.**

**EHUorkestra sinfonikoa elkarte irekia da, eta bertan parte har dezakete bai gure unibertsitateko kideek bai proiektuan lagundu nahi duten unibertsitatetik kanpokoek.**

**Egun, elkarteak berrogei kide baino gehiago ditu, Doru Artenie-k zuzendutakoak, eta "European Network of University Orchestras" eta "Sinergia. Red de Orquestas Universitarias Españolas" elkarteetako kidea da.**

EHUorkestra Sinfonikoa tiene como fin servir de vehículo de comunicación cultural a través de la música sinfónica entre la Universidad y la sociedad vasca, así como promover entre los componentes de la asociación la formación y la investigación musical.

EHUorkestra Sinfonikoa es una asociación abierta en la que pueden participar tanto miembros de la comunidad universitaria como personas externas que deseen colaborar en el proyecto.

En la actualidad cuenta con más de cuarenta músicos dirigidos por Doru Artenie y pertenece a la "European Network of University Orchestras" y a "Sinergia. Red de Orquestas Universitarias Españolas".

**Parte hartu geure EHUorkestran!**
¡Anímate a participar en EHUorkestra!

www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/orkestra-sinfonikoa

# EL NAVEGANTE

## ART-Arimaktore

Antzerkia / teatro

Maiatzak 16 mayo

19.30

**Mitxelena. Bizkaia Aretoa. Bilbao**

CAS

Sarrera libre aretoa bete arte
Entrada libre hasta completar aforo



"El Navegante" obrak izen bera duen eta mundu osoan ezaguna den irratsaiora garamatza. Irratsaioaren

"El Navegante" nos introduce en el mundialmente famoso programa de radio del mismo nombre, conducido por el

gidaria Ulises ospetsua (Aitor Borobia) dugu, zeinek eguneroko aktualitatearen berri ematen ibilbide azkarra bete ondoren, sare sozialeko aktualitateari buruz diharduen gaueko irratsaio batean. Yara izeneko (Leire Orbe) lankide berriak bere mentorearengandik ikasi eta sareei buruz duen topikoz beteriko ikuspegi zaharkitua eztabaidatuko dio. Alabaina, dena aldatuko da erabateko gaurkotasuna duen albistea agertzean. Ba al da beste inor albiste horren berri ematen? Horretan al dabiltza gainerako irratiak? Beharbada Ulises izango da bere azken esklusiba izan daitekeena bete dezakeen bakarra. Ongi etorri “El Navegante” obrara.

reconocido Ulises (Aitor Borobia) que, tras una meteórica carrera cubriendo la actualidad diaria, acaba sus días en un programa nocturno sobre la actualidad en las redes sociales. Su nueva compañera Yara (Leire Orbe), de otra generación, aprenderá de su mentor y le discutirá la visión anticuada y llena de tópicos que tiene sobre el mundo de las redes. Sin embargo, todo cambiará cuando una noticia de imperiosa actualidad aparezca. ¿Hay alguien más cubriéndola?, ¿funcionan las otras emisoras? Quizá solo Ulises pueda cubrir la que puede ser su última gran exclusiva. Bienvenidos a “El Navegante”.

# Bilbao Art District

**Esku-hartze artistikoak /** Intervenciones artísticas

Maiatzak 18-27 mayo

**Bizkaia Aretoa. Bilbao**



Arte Ederren Fakultateak, UPV/ EHUren Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza-rekin, Bizkaiko Campuseko Unibertsitate Hedakuntzarako Zuzendaritzarekin (EHUkultura-Bizkaia) eta Bilbao Ekintzarekin batera, honako deialdi hau egiten du: Bizkaia Aretoan esku hartze artistikoak egiteko ideien lehiaketa.

La Facultad de Bellas Artes, en colaboración con la Dirección de Proyección Universitaria de Campus de Bizkaia (EHUkultura-Bizkaia), con el Vicerrectorado del Campus de Bizkaia de la UPV/EHU y con Bilbao Ekintza, convoca un Concurso de Ideas para Intervenciones artísticas en espacios del Bizkaia Aretoa dentro del programa Bilbao Art District.

**www.ehu.eus/ehusfera/bbaa/2018/03/02/concurso-de-ideas-para-intervenir-en-el-bizkaia-aretoa-3**

# FRONTOIA, BEGIZ ETA HOTSEZ

**Antzerki Faktoria /** Factoría de Teatro. **EHUkultura-Gipuzkoa**

Antzerkia / teatro

Ekainak 13 junio 19.30

**Mitxelena. Bizkaia Aretoa. Bilbao**

EUS

Sarrera libre aretoa bete arte
Entrada libre hasta completar aforo



Zertaz ari da *Frontoia, begiz eta hotsez?* Neska-mutil gazteen istorioak dira. Pilotalekuan topo egiten dute. Pilotan jolasten dute, erronkak egiten dizkiote elkarri; ezagutu, borrokatu, haserretu ere egiten dira; jaiak ospatu eta etsipenak onartu... Abestu ere egiten dute, musika jo eta maitasunaz borrokatu.

**www.ehu.eus/es/web/gipuzkoa/kultura1**

# BIRDY

**Lai Hung-chung-en koreografia /** Coreografia de Lai Hung-chung. Taiwan

Dantza / danza

Ekainak 29 junio 20.15

**Mitxelena. Bizkaia Aretoa. Bilbao**

Sarrera libre aretoa bete arte

Entrada libre hasta completar aforo



XIII. LEKUZ LEKU (ACIELOABIERTO SAREKO kide) edizio honetan nazioko eta nazioarteko dantzarien proposamenak aurkeztuko dira gune bakoitzerako sorketa bereziak eginda.

En esta XIII Edición, LEKUZ LEKU (asociado a RED ACIELOABIERTO) presenta propuestas de bailarines nacionales e internacionales con creaciones específicas para cada espacio.

Lai Hung-chung koreografo taiwandarraren **Birdy** lanak lortu zuen Burgos & New York Koreografiako 16. Nazioarteko Lehiaketaren Dantza Garaikideko lehen saria. Lehiaketa uztailaren 26tik 28ra egin zen. Lai-ren lana gizakiaren beldurren antzezpen bat da. Antzezpena dantzaren bidez egiten da eta dantza bera beldur horiek gainditzeko gai dela erakusten da.

**Birdy** koreografo taiwandarrak konposatzen duen bigarren lana da. Watcher izeneko bere lehen lanak Hannover-ko (Alemania) Koreografoen 31. Nazioarteko Lehiaketan hirugarren postua eta kritikaren saria eskuratu zituen.

**Birdy**, del coreógrafo taiwanés Lai Hung-chung, se hizo con el primer premio de Danza Contemporánea del 16º Certamen Internacional de Coreografía Burgos & New York, el cual tuvo lugar del 26 al 28 de julio. La obra de Lai es una representación de los miedos del ser humano a través de la danza y de cómo este es capaz de superarlos.

**Birdy** es la segunda obra que compone el coreógrafo taiwanés. Su primer trabajo, Watcher, se hizo con el premio de la crítica y el tercer puesto del 31º Concurso Internacional de Coreógrafos en Hanover (Alemania).

**Laguntzen du** / colabora

HUNG DANCE

NCAF National Culture and Arts Foundation

ACIELOABIERTO

masdanza

# TAILERRAK / TALLERES

CAS

## Taller de Microrelatos

**Lugar:** Bizkaia Aretoa. Elhuyar Aretoa. Bilbao

**Duración:** 12 horas

**Fechas**: 3, 10,17, 24 de mayo

Horario: 17:00h a 19:00h

Propuesta de créditos optativos: 0,5

EUS

## Gure balioa aurkezteko erronka: Gradu Amaierako Lanaren (GAL) defentsarako prestakuntza. Curriculum vitaea, motibazio gutunak, eta elkarrizketa eraginkorrak egin

**Tokia** : Bilboko Ingeniaritza Eskola (II eraikina) Bilbao.

**Iraupena:** 6 ordu

**Data :** Apirilak 20 eta 27

**Ordutegia** : 15:30 -18:30

**Gela:** P4M15S mintegia

EUS

## Zure Gradu Amaierako Lana (GAL) Defendatu: Zure Proiektua Profesionaltasunez Eta Ziurtasunez Transmititzeko Estrategiak Eta Tresnak.

**Tokia** : Leioako Campusa. Bibliotekaren eraikinean.

**Iraupena:** 6 ordu

**Data :** Apirilak 20 eta 27

**Ordutegia** : 10:30 -13:30

**Gela:** Mintegi-Leioa Liburutegi-6

# EsZena

UPV/EHUko kideek eta kide ohiek sustatzen dituzten jarduera eszenikoak dinamizatu eta hedatzeko proiektu bat da, EHUKultura-Bizkaiak antolatzen duen programazioan parte hartuta.

Es un proyecto de dinamización y proyección de actividades escénicas promovidas por los miembros y ex miembros de la UPV/EHU a través de su participación en la programación que se desarrolla desde EHUKultura-Bizkaia.

**www.tinyurl.com/esZena**

## Nola jaso 'EHUkultura-Bizkaia'ren informazioa zure posta elektronikoan?

UPV/EHUk Bizkaian antolatzen dituen kultur jarduerei buruzko informazioa jasotzeko zerbitzuan alta ematea doan nahi duten lagunek webgunean eman behar dute izena esteka honen bidez:

## ¿Cómo recibir información de EHUkultura-Bizkaia en tu email?

Aquellas personas que quieran darse de alta gratuitamente en el servicio de recepción de información de las actividades culturales de la UPV/EHU en Bizkaia, solo tienen que suscribirse en la web, a través del enlace:

**www.tinyurl.com/alta-ehukultura-bizkaia**



**Kultur Gestiorako Bulegoa**
Oficina de Gestión Cultural

**Bizkaia Aretoa-UPV/EHU**
Abandoibarra, 3 | 48009 Bilbao
Tf.: +34 94 601 21 04
+34 94 601 71 42
ehukultura-bizkaia.info@ehu.eus
**www.ehu.eus/ehukultura-bizkaia**